

DBH3 BIOlogia-GEOlogia: "Zelulatik ekosistemara" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Ikerketa-helburuari erantzuten dion hasierako hipotesia baieztatzeko edota ukatzeko metodoa imajinatuz, eta lortutako emaitzetan eta emandako euskarrietan oinarrituz izaki bizidunen egitura identifikatu, eta beren osagai, ezaugarri eta funtzio nagusiak adierazi.	<p>1.1. Zelula motak identifikatu eta adierazi ditu.</p> <p>1.2. Zelularen osagai eta funtzio nagusiak azaldu ditu.</p> <p>1.3. Ikerketari lotutako helburu eta hipotesi pertinateak formulatu ditu.</p> <p>1.4. Metodo zientifikoaren urratsak identifikatu eta azaldu ditu.</p>
2. Euskarri desberdinetan oinarrituz eta ikerketa prozesuari lotutako Informazio-iturriak erabiliz, emandako adierazpen eta galderen bidez izaki bizidunen osaera kimikoa, ezaugarri eta funtzio nagusiak balioetsi eta azaldu.	<p>2.1. Izaki bizidunen osaera kimikoa eta ezaugarriak identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>2.2. Izaki bizidunek betetzen dituzten bizi funtzioak balioetsi eta azaldu ditu.</p>
3. Habitaten eta ekosistemen egoera, faktore eragileak eta bizidunen arteko harreman motak identifikatu, eta, sistema horietan sortzen diren elkarreraginak ondorioztatuz eta arrazoituz, hipotesiak eta proposamenak formulatu.	<p>3.1. Ekosistemen eta habitaten faktore eragileak eta bizidunengan duten eragina identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>3.2. Ekosistemetako maila eta kate trofikoak identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>3.3. Gaiari lotutako hipotesi pertinateak formulatu, horiekiko arrazoiak eman ditu.</p>